



HERNANIKO UGAZTUN BASATI

ikuste^zin^{ak}

X.LARRETXEA eta X.INSASTI

■ azko artikulua asmoarekin amaitu nahian, Hernani inguruan aurki daitezkeen gainontzeko ugaztun basatien ezaugarri eta ohitura azpimarragarrienak azaltzera goaz. Horrekin batera, beraien arrasto-markak eta gorozkien irudiak aurkezten ditugu, sarritan ugaztun horien presentzia adierazten duten eta aurkituko ditugun arrasto bakarrak baitira.


Bigarren atal honetan espezie haragijaleak azaltzen dizkizuegu, hala nola: erbinudea, lepazuria, azkonarra eta azeria. Guztiak tamaina ertaina edo handikoak. Beraien ohitura gautarra eta gizakiarengandik jasaten duten presioa direla eta, aurreko alean aurkezturiko ugaztun intsektiboroak eta karraskariak baino zailago izaten da beraienkin topo egiten.

Artikulu hau horietako baten bat ikusteko lagungarri izango zaizuelakoan, zorte on!

ERBINUDEA
(Ordena:
Haragijaleak)

Gazteleraz "comadreja" izenarekin ezagutzen den espeziea, *Mustela nivalis*, ugaztun haragijale txikiena da. Bizkaraldea kolore arre gorriska du; sabelaldea zuria, ordea. Gorputza malgutasun handikoa





da eta forma zilindrikoa du. Hankak laburrak, lepo luzea, buru txikia, eta belarri borobilak eta tente-tenteak. Tamainari dagokionez, sexuaren arabera oso ezberdinak dira; emearen tamaina arraren erdia izaten da gutxi gora-behera. Arraren gorputza 18-20 cm bitarteko da, isats motza (6 cm ingurukoa) eta pisua 60-120 gramo bitartean egoten da.

Animalia bakartia da, egunez nahiz gauzez ibiltzen dena, biziki jakinguratsua eta geldiezina. Muskerrek, igelek, untxi gazteek, txori txikiek, saguek ...ea.ek osatzen dute bere ohiko dieta. Harrapakina, aztarnaren bidez jarraitu eta garondoko haginkada batez hiltzen du. Sarritan sartzen da beste ugaztunak egindako zulo eta gordeleketan, izan ditzakeen harrapakinak ehizatzeke. Lurraldea isats azpian dituen guruinetatik jariatzen duen substantzia batez markatzen du. Mehatxatzen edo hasarretzen dutenean substantzia hori defentsa modura ere erabiltzen du etsaiari jaurtikiz.

Batzuetan, inguruko usainak edo gauzak hobeto bereizteko edo, posizio bitxi bat hartzen du: aurreko hankak altxaturik dituelarik atzeko hanken gainean "zutik" ipintzen da.

Antzinako Grezian etxeko animalia zen eta katuaren ordean erabiltzen zen saguak eta horrelakoak hiltzeko.

LEPAZURIA

(Ordena: Haragijaleak)


Gaztelaraz "garduña", *Martes foina*, izenarekin ezagutzen den espeziearen euskal izena bere



bularrean eta eztarrian agertzen duen ile zuriagatik da. Gorputz sendoko animalia da (40-50 cm-ko luzera eta 1-2,5 kg-ko pisua), bularrean izan ezik ile-kolorea marroia da, belarri txikiak, hanka zabal eta laburrak, muturra triangeluarra eta letagin zorrotzak ditu. Beste ezaugarri nabarmen bat bere isats luzea da (23-26 cm bitartean).

Animalia bakartia da eta gauzez ibiltzen da. Haragijalea da eta nagusiki, ugaztun eta hegazti txikiak ehizatzen ditu. Hala ere, udazkenean batez ere, hainbat fruitu, baia eta ornogabeak (intsektu eta zizareak) jaten ditu bere behar energetikoak betetzeko. Ezta asko maite du eta mendian aurkitzen dituen erlauntzak harrapatzen du. Ehizean ari denean zuhaitzetara igotzeko gai bada ere, lepazuria bizimodu lurtarreko animalia da.

Oso ankerra eta odoltsalearen "fama" du. Askotan entzuten da oilategi batean sartuz gero ez duela oilo bakar bat ere bizirik utziko, nahiz eta gero batekin bakarrik ihes egin. Hala ere, ez da zenbaitzuk dioten bezain odoltsalea, eta hegazti-



haztegietan eraso ugari eta gogorak egin ditzakeen arren, eskertzeko lana burutzen du bere dietaren zatirik handiena osatzen duten karraskari-populazioak (sagu, arratoi, sagutxu,...ea) kontrolatuz.

Basoetan aurkitzeko aukera gehiago dago, bizitzeko habitat hori nahiago du eta. Dena den, harkaitzeko muino irekietan ere aurki daiteke. Bere lurraldearen mugak adierazteko, harkaitz, enbor edo bestelako leku ikuskorretan usain-markak ezartzen ditu.


1984eko uztaila geroztik Euskal Herrian espezie hau babesturik dago eta ehizatzea debekaturik dago.



AZKONARRA

(Ordena: Haragijaleak)

Mustelido familiako ugaztun hau, *Meles meles*, gaztelaniaz "tejón" izenarekin ezagutzen da. Animalia honen ezaugarri ikusgarri eta nahastezina buruan dituen bi lerroakadura beltz bereziak dira. Bizkarraldeko eta isatseko ilea grisa da; sabelaldea eta hankak beltzak. Belarriak txikiak, muturra luzea eta isatsa laburra dira beste ezaugarri morfologiko nabariak. Hankak sendoak ditu, hazkazal luzez hornituta eta horiei esker gordelekua eraikitzean eta janaria bila dabilenean erraztasunez zulatzen du lurra. Azeriarekin batera, gure herri inguruan aurki



8 CM.



dezakegun ugaztun basati handiena dugu isats eta guzti metro inguruko tamaina eta 10-20 kg-ko pisua baitu.

Familiatan bildurik bizi da. Gaez ibiltzen da. Ibilera "trakets" samarra du. Orojalea da eta ezkurak, belarra, hirusta, sustraiak, intsektuak, bareak, hegaztiak, anfibioak eta ugaztun txikiak jaten ditu. Neguan bere aktibitate maila txikiagoa izaten da, baina benetako hibernazioa egitera iritsi gabe. Klima-baldintzak egokiak ez direnean, gordelekuan egoten da luzaroan; hamalau aste ere eman dezake jan gabe, larruazpiko gantz-erreserbetatik bizirik.

Azkonarra baso hostogalkorreko eremuetan eta larreditan aurki genezake, inguru horietan aurkitzen baititu aterpea eta elikagaiak.

Orain dela urte batzuk arte, bere ilez bizarra mozteko brotxak eta pintazeko brotxak egiten ziren.

AZERIA

(Ordena: Haragijaleak)

Vulpes vulpes izen zientifikoarekin


ezagutzen den haragijale hau erraz identifikatzen da, tamainu ertaineko txakur baten antza duelako. Bere ezaugarri morfologiko deigarrienak honokoak dira: mutur mehea eta isats luze eta iletsua.



Bakartia eta iheskorra da. Normalean, gaez ehizatzen du eta eguna gordelekuan ematen du, baina egun argiz ere ikus daiteke. Usaimena, entzumena eta ikusmena oso garatuak ditu. Horiei esker, oraindik irauten du azeriak gure ingurunetan, betidanik etengabe ehizatutako eta harrapatutako espeziea izan baita. Bere dieta karraskariek, hegazti txikiek eta arraultzek osatzen dute; hala ere, fruituak, intsektuak eta hilda aurkitzen dituen animaliak ere jaten ditu. Soberan duen janaria

lurperatu egiten du aurreko gorputzadarretako hatzazparrez egindako zulo batean.

Gose denean sarritan baserrietara eta herrietara hurbiltzen da etxeko hegazti eta untxiak harrapatzeko. Hori dela eta baserritarrek gorroto diote azeriari eta modu askotara ehizatzen saiatzen dira, hala nola: lazoa, zepoak, pozoina... ea. Amorruaren edo errabiaren transmititzaile posibleetariko bat denez, Europako zenbait lurraldetan osasun-arazoak argudiatuz asko ehizatu da espezie hau eta bere polulazioa nabarmenki murriztu da. Orain dela gutxirarte gure herrietako baserritarren batek azeririk ehizatzen bazuen, baserriz baserri pasatzen zen hildako animalia bizkarrean eramanez, herrikideek errekonpentsa zezaten, beraren abereentzako arerio bat gutxiago geratzen baitzen. Hala ere, "anekdota" horien guztien gainetik potentzialki oso kaltegarri diren karraskari populazioak (arratoiak, saguak eta satixuak) kontrolatzeko duen garrantzia azpimarratzekoa eta baloratzekoa da. ♦



BIBLIOGRAFIA

- *Guía de campo de los mamíferos españoles para biólogos y amantes de la Naturaleza*. Luis Blas Aritio. Ediciones Omega, Barcelona, 1984.
- *Euskal Herriko fauna (ornodun lehortarrak) Anfibioak, narrastiak, hegaztiak, ugaztunak*. Jon Larrañaga. Elhuyar kultur-elkartea, 1996.
- *Huellas y señales de los animales de Europa*. Preben Bang eta Preben Dahlström. Ediciones Omega, Barcelona, 1992.
- *Euskal Herriko ugaztunak*. B. Beatriz Canton, Maria Nieves Diaz eta Maria Cristina de Pablo. Kriselu, Donostia, 1992.
- *Manual de los mamíferos de España y de Europa*. Gordon Corbet eta Denys Ovenden. Ediciones Omega, Barcelona, 1982.
- *Ugaztunak*. Steve Parker. Ediciones Altea, Madrid, 1991.
- *"Ederra eta piztia"*. Migel Mari Elosegí. Elhuyar, Zientzia eta Teknika, 84. alea., 22-23 or.
- *"Azeria, azerikeriatan maisu"*. Jose Ramon Aihartza. Elhuyar, Zientzia eta Teknika, 52. zkia., 28-30 or.